

Eskualde bozetako zenbaketa eredu aldatu dute

Gehiengo iraunkorrek finkatzeko asmoa du Frantziako Gobernuak

Hurrengo eskualde hauteskundeetan —2004. urtean izango dira— zenbaketa eredu berria erabiliko da Frantzian. Proporzionala atxikiko bada ere, zenbaketa gehiengodun doi bat sartuko da, gehiengo iraunkorrek finkatzeko xedez. Hautesbarrutia, berriz, eskualdea bera izango da, eta ez, orain arte bezala, departamendua.

Allande Sokarros / Baiona

LIONEL JOSPINEN egitarauko erreforma garrantzitsu bat onartu zuen, azkenean, Frantziako Legebiltzarrak astearte arratseko saioan, hots, eskualde hauteskundeentzako bozketaren ereduaren aldaketa.

Eredu berria, 2004. urtean egingo diren hauteskundeentzako baliatuko da, eta helburu nagusizat dauka Eskualde Kontseiluetan gehiengo sendoak eta iraunkorrek finkatzea. Izan ere, iragan martxoan egin ziren bozketen ondorioz, ohargarritzat geratu zen gaur egungo ereduak, hots, proporzionala osoa departamenduak osatutako hautesbarrutian, gehiengo ahulak eragiten zituela sarritan. Agerian geratu zen, halaber, sistema horrek eragindako emaitzek Fronte Nazionala jarri zutela jarrera erabakigarrian eta eskuineko eskualde presidentegai zenbaitek Le Penen alderdiarekin esku-esku ibiltzea aukeratu zutela aginteaz jabetzeko gisan.

Proporzionala, baina zenbaketa gehiengodun osatua • Etorkizunean horrelakorik ez gertatzea izan da, beraz, testu horren moldatzaileen nahikundeak. Hala, proporzionala eredu atxiki baldin bada ere, zenbaketa gehiengodun zati bat aplikatzea pentsatu dute, boto gehienik eskuratuko duen zerrenda fagoratzeko. Esaterako, zerrenda batek lehen txandatik gehiengo absolutua lortzen badu, berez eskuratuko du aulkien laurdena.

Gainerateko jarlekuak banatuko dira botoen % 3 gutxienez lortuko dituzten zerrenden artean, euren emaitzen arabera kalkulatu proporzionalen.

Bigarren itzuli bat egonda —eta hori izango da kasu normala— boto gehienik lortuko duen zerrenda aulkien laurdenaz jabetuko da, eta orduan ere gainontzeko jarlekuak banatuko dira botoen % 3 eskuratuko dituzten zerrenden artean, euren emaitzen arabera. Berrikuntza da, beraz, lehen itzulitik edo segurrago bigarrenetik boto gehien lortzen duen zerrenda jarlekuen laurdenaz jabetuko dela.

Bigarren itzulian geratzeko botoen % 5 nahikoa • Bigarren txandan lehiatzeko, zerrenda batek botoen % 5 lortzea nahikoa izango du. Alabaina, lehen itzulian, gutxienez % 3 lortuko dituzten zerrenden artean aliantzak egiten ahal dira. % 5aren gutxiengo maila finkatzea sozialisten eta komunisten arteko bat egitearen ondorioa da. Eskuineko alderdiek gogor salatu dute arau hori, eta UDFko Renaud Donnadiu de Vabresen iritzian, esaterako, hori izan da «komunistei eta Fronte Nazionalari egindako Eguberriko opari bat».

Eskualdea bera izango da hautesbarrutia • Eskualde hauteskundeak egiten direnetik, hautesbarrutia departamendua izan da. 2004. urtetik hasita, ordea, eskualde mailan osatu



Bernard Harang UDFkoa botoa ematen, Centre eskualde kontseiluan, iragan martxoan.

DANIEL JANIN / EPA

beharko dira zerrendak. Arau berri horrek ez badie alderdi estatualista handiei ondorio txarrik eraginen, aitzitik izango da, aldiz, herri batzuetan aurkeztu nahi izango diren zerrenda aberzaleen kasuan, hautesle kopuruaren handitzeak are gehiago gutxiengoratu baititu.

Boto blokeatua baliatzeko aukera, 2004ra iritsi bitartean • Erreforma hurrengo eskualde hauteskundeetan da gauzatuko. Bitartean, haatik, ezkerreko gehiengoak gaur egungo Eskualde Kontseiluen ibileran agintearen blokeoa gertatzea nahi izan du eragotzi. Hortaz, boto blokeatu sistema bat legezko jarri du. Esaterako, aurrekontuen bozkatze unean blokeatze bat gertatzen bada, eskualdeko presidentegai gehiengo erlatibo onartarazi ahal izango ditu bere kontuak, eta egoki iruditzen zaizkion zuzenketekin bakarrik. Arau hori aurre egiteko modu bakarra izango da aurrekontu proiektu berri bat eta beste presidentegai bat aurkeztea.

Agintaldia urte batez gutxitua • Ezkerreko gehiengoak (PS, PCF, PRS, Berdeak) ontzat hartutako eta eskuineko oposizioak (DL, RPR, UDF) arbuatutako erreforma horren beste atalei dagokienez, eskualde hautetsien agintaldia sei urtetik bost urterat gutxitzea dago. X



BATZUK LOTSAGARRI
IBILTZEN DIRA

Tahitin hondamendi egoera deklaratu dute azken ekaitzarengatik

Euriteen ondorioz, hiru lagun desagertu eta mila etxe suntsitu dira

A. Sokarros / Baiona

HIRU bizilagun desagertuak, 25 etxe kaltetuak eta beste 20 erabat txikituak, 1.300 herritar ziren etxetik ihes egiterat behar izan zutenak eta 45 kilometro bide anderatuak, horiek dira, hotz eta botz, Polinesia frantziarrekoi komisarioak emandako datuak. Tahiti uharteak pairatu dituen eurite itzelen ondoriozko balantze gisa, Jean Aribaudek gaineratu zuen, haatik, balantze hori ez dela behin betikoa eta, haren

aginduz, hondamendi egoera deklaratu dute. Desagertuei dagokienez, bost urteko neskatxa bat ubide batera erori zen, 22 urteko gazte bat urek eramane zuten erreka ertz batetik bestera igoz ari zelarik eta kazetari bat bere autoarekin batera uhar baten erdian harrapatu geratu zen.

Ondorio horiek guztiak joan den aste amaieran gertatutako eurite handiek eragin zituzten. Tahiti uharterako zenbait tokitan, metro koadroan 300 litro ur erori

zen, iragan larunbat arratsaldean bakarrik.

Euritea ostiral arratsean hasi zen Polinesian, eta larunbatean zein igandean ere etengabe bota zuen. Hortaz, uhartereko erreka eta ibai guztiek gainezka egin zuten, eta ertzetan kokatutako etxeak urpean harrapatzeaz gain, bide ugari moztuta geratu ziren uholdeen edo lubizien ondorioz. Zubi askok ere ez zioten uriolen indarrari aurre egin ahal izan, eta deseginak geratu ziren. X